

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
4 positibo berri	1.603 hildako EAEn	7 positibo berri	528 hildako
2.286 positibo guztira*	10 UCIn EAEn	5.371 positibo guztira	4 ospitalizatuta
*Hernanin 64 Astigarragan 21		Sendatuak EAEn: 17.820 Nafa: 8.708	

Zapiain sagardotegi astigartarrak irabazi du Gipuzkoako 19. Sagardo Lehiaketa

Txapelketaren helburua bertako sagarrarekin egindako sagardoa saritzea da; aurtengoan, 27 sagardogilek hartu dute parte eta 12 sagardotegi hernaniar eta astigartarrek lortu dituzte urrea, zilarra eta brontzea.

ASTIGARRAGA-HERNANI SAGARDOA
Astigarragako Zapiain sagardotegia izan da Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen duen 19garren Sagardo Lehiaketaren irabazlea. 17 sailkatuen artean gailendu da eta epaimahaiak sagardoetxe honek egiten duen sagardoaren kalitate analitiko eta organoleptikoa jarri ditu baliolan.

19garren edizioa honetan, azpimarratzekoa da parte hartzaile kopurua nabarmenki igo dela. Lurralde historikoko 27 sagardogile lehiatu dira eta iaz bezala, aurten ere, lortutako puntuazioaren arabera hiru kategoriatan banatu dira sagardoak: urrea 72 puntutik gora, zilarra 65 eta 72 puntu artean,

eta brontzea 60 eta 65 puntu artean. Jarraian, urre kategoria lortu duten sagardoaren artean bigarren dastatze-fase bat egin da eta txapelduna aukeratu da. 60 puntuko minimoa lortu ez duten sagardotegiak dominarik gabe geratu dira, eta txapelduna berriz, bigarren dastatze-fasean aukeratu da, urrezko kalifikazioa lortu duten sagardotegi horien artean.

Hernani eta Astigarragako sagardotegi askok urrea, zilarra eta brontzea
Hori horrela, Sagardo Lehiaketako 2020ko edizioan 17 izan dira 60 puntutik gora lortu dituzten sagardoetxeak: brontzezko kalifikazioa lortu du Petritegi sagardotegiak. Zilarrezkoa



Zapiainek saria jasotzen duen Markel Olanoren eskutik.

Iparragirre, Oiharte, Alorrenea, Gurutzeta eta Etxeberria sagardotegiak. Eta urrezkoa, berriz, Itxasburu, Gartziategi, Akarregi, Urdaira, Isastegi, Zapiain, Izeta, Altzueta, Lizeaga, Aburuza eta Zelaia sagardotegiak.

Txapeldunetan txapeldun,

ordea, Zapiain sagardoetxea gailendu da.

Saritu guztiek euren botiletan, datorren urte osoan, zigilu akreditatibo bat eramateko aukera izango dute, urrezko, zilarrezko eta brontzezko sailkapena erakutsiko duena. **K**

Atsedeen egunak, Gaztelekuak

HERNANI GAZTELEKUA

Hernaniko Gaztelekuak atsedeen astea hartuko du eta datorren ekainaren 29ra arte itxita egongo da eta ez da aktibitate-rik antolatuko. Hori bai, uztaila ekitaldez beteta dator.

Kaleak, oinezko eta bizikletentzat

HERNANI UDALA

Gaur, zenbait kale irekita egongo dira oinezko eta bizikletentzat: Urbieta kalea eta Akarregiko bidea. Sagastialde kalea, hemendik aurrera ibilgailuentzat egongo da zabalik, autobusen joan-etorria hasi delako.

'Yogui errante'-n ezin da eskalatu

HERNANI ESKALADA

Santa Barbaran, *Yogui errante* bidearen inguruko 20 metro-tan eskalatzea debekatua dago, behin behinean, bertan kumartzten duten espezie mehatxatuei buruzko informazio gehiago izan arte. Eskalada jasangarriaren aldeko apustua da.

Datozen egunotan jende pilaketak ez egoteko kontrola zorrotzko du Udalak Udaltzaingoarekin

Ostirala goizean Hernaniko Udala eta ostalarien ordezkariak izandako bileran adostu dute neurriak zorrotz aplikatuko dituztela.

HERNANI UDALA

Hernaniko Udalak plangintza berezi bat prestatu du datozen egunotan pilaketak saihesteko helburuz. Horrela, herriko alkateak eta Merkataritza arloko zinegotziak herriko ostalariarekin bilera bat egin zuten ostiralean -25 bat ostalarik parte hartu zuten- ardura hori konpartitzeko. Tabernetako ordezkariak

konpromisoa hartu dute afora kontrolatzeko eta segurtasun neurriak errespetarazteko. Udalak, bere aldetik, indartuko du Udaltzaingoaren presentzia eta kontrola kalean.

«Ez dago jairik eta ez etorri Hernanira jiaka ospatzera»
Horretaz gain, Udalak gogorazti nahi du ez dagoela jairik. Beraz, eskaera bat egin nahi die

beste urteetan kanpotik herriko jaiak erakarrira etortzen den jendeari: mesedez, haien herrietan gelditu daitezten, Hernanira ez daitezela etorri. Halaber, kalean ezin dela edan gogorazti nahi du Udalak eta, beraz, kedadak eta botiloak zorrotz kontrolatuko direla jakinarazi du.

Eusko Jaurlaritzak alarma egoeraren amaiera dekretatu berri duela kontuan hartuta, udal zerbitzuak apurka-apurka bere onera itzultzen hasi dira, saltokiek eta ostalaritza establezimenduek ere irizpide laxagoak dituzte jarduteko eta herritarrek

kalera irteten hasi dira, lehengo bizimodua berreskuratu nahian.

Horretaz gain, udaren atarian gaude, eskola oporrak ere hasi dira eta, sanjoanak bertan behera uztea erabaki zen arren, urtero jaiak ospatu izan diren egunak gerturatzen ari dira. Horrek eta pandemiaren inguruan azken aldiak jasotzen ari garen mezua onerak COVID-19ak kutsatzeko arrisku pertzepzioaren arintzea ekar dezake eta, ondorioz, kalean jende pilaketak egotea aurreikustekoa da. Hori ez gertatzea herritar guztion ardura da. **K**

Urdinak nagusi, Galarretan

URUMEA ERREMONTA

50garren urteurreneko Erremonte Txapelketarekin bueltatu zen atzo erremontea Galarretara. Bi partidu jokatu ziren eta bietan urdinak nagusitu ziren, nahiko erraz. Lehenengo partiduan, Endika eta Juaneak 35-28 irabazi zuten Urriza eta Zubiriren aurka eta bigarrengoan, Ansa II eta Larrañagak, 35-23, garaitu zituzten Goikoetxea V eta Barrenetxea. Garaipen horiekin urdinek launa puntu batu dituzte eta bikote gorriek ez dute lortu punturik. Bikote orekatuak, orekatuago eta sendago aritu ziren bi partiduetan, merezimendu osoz irabaziz.

BIKAIN
OKINDEGI TX GOZOTEGIA

Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Ezlagu poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

ISABEL
Janari denda
COVIRAN

Tomas Alba 11,
Astigarraga
943 55 23 67

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura

24h-ko zerbitzua
943 376 980

Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI

www.funerariavascongada.com

GAUR Uda giroarekin emango zaio hasiera urtaro berriari. Zerua laino gutxiarekin egongo da orokorrean, baina goi-lainoak agertuko dira. **Min.13° / Max.23°**

BIHAR Berriz ere uda-giroa izango da. Dena dela, goizeko lehen orduetan i behe-laino dezente izango da; goizak aurrera egin ahala gutxituz joango dira. **Min.14° / Max.23°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Tena Nagusia, 16 (Astigarraga) **943 543718** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



«Azken urte hauetan pasibotasun etsigarria erakutsi du Gobernuak»

PSE-EEk gauetan Kaxkoan gertatzen diren gizalegearen aurkako jarreraren aurrean jardutea eskatzen dio EH Bilduren Udal Gobernuari.

HERNANI PRENTSA OHARRA

Ricardo Crespo udal talde sozialistaren bozeramailea kezkatuta agertu da, «Kaxkoko bizilagunak jasaten ari diren eragozpenengatik. Hernaniko inguru horretan bizi direnen atsedena errespetatzen ez duen eta kalean edaten duen taldeak egoten dira. Hauek, eztabaidak, borrokak, erasoak eta gizalegearen aurkako jokabideak eragiten dituzte, hala nola, material publiko eta pribatuaren txikizioa».

Ohar baten bidez azaldu duenez, COVID-19ren pandemiagatik «alarma egoeraren amaieran gaudenez, ostalaritzako lokalek mugatuta ireki ditzakete ateak, eta horrek kalean edariak hartzea errazten du, asteburuetan gizalegearen aurkako portaerakin». Ostalarien eskubidea eta

gaueko aisialdia uztartzea «zaila» dela onartu du Crespok. Are gehiago, ohartarazi du «inoiz» ez dela «batzuen eta besteen arteko» egoera bihurtu behar, baina esan du Udaletik neurriak hartu behar direla hori kontrolatzeko eta berragerraldien arriskua saihesteko.

Txotx mahaia birbideratu behar dela dio PSE-EEk

Crespo kexu agertu da EH Bilduren Udal Gobernuak «urte hauetan erakutsi duen pasibotasuna etsigarria» dela. «Txotxen denboraldiak eragindako eragozpenen aurrean, ez zuten behar bezain sendo jokatu, eta orain normaltasun berriaren aurrean ere ez, nahiz eta egoera larriagotu daitekeen; izan ere, portaera-arazo horrekin batera, urrutze soziala eta koronabiru-

saren aurkako babes-neurriak ez dira betetzen ari. Pentsatu al du inork honen guztiaren ondorio sanitarioetan?»

«Aginte faltagatik eta gehiegizko permisibitateagatik dugun kezka adierazi besterik ezin dugu egin», dio jarraian Hernaniko PSE-EEk, eta txotx mahaia birbideratu behar dela esan du, «Baliaezina dela erakutsi du, eta kanpoko aholkularitza-zerbitzu bat kontratatu behar da Tolosan ifnauterriekin egin den bezala konponbideak proposatzeko, inplikaturako agente guztien parte-hartzea eskatuz eta neurri horien bideragarritasuna bilatuz».

Era berean, Udaltzaingoaren lana indartzearen aldekoa da, giza baliabideak eta baliabide materialak emanez, beren lana modu «eraginkorrean» egin dezaten, eta horrek Ertzaintzarekin elkarlanean aritzea eta elkarri laguntzea eskatzen du, bide publikoan zein gaueko lokaletan kontrolak indartzeko. **K**

Datorren asteko Egunean Behin jokoan hiru sari potolo banatuko dira

Kronika-Dobera taldean sartuta egon behar da eta lehendabiziko bi sailkatuentzat bi sari izango dira eta hirugarren bat ere bai, zozketaz.

URUMEA KRONIKA-DOBERA

Egunean Behin jokoa denboraldiko azken astean sartuko da bihar eta Kronika-Doberak duen taldean hiru sari potolo banatuko dira astea amaitu eta gero. Sariak lortzeko Kronika-Dobera duen taldean egon behar da sartuta eta astean zehar edozein egunetan sartu daiteke.

Saria jasotzeko lehendabiziko bi postuetan geratu behar da

sailkapenean behin astea amaituta eta hirugarren sari bat ere izango da zozketa bidez.

Sariak honako hauek izango dira: lehendabizikoak; Errigora produktuen lote bat, Dobera elkarteke liburuen pack-a eta Kronikan zorientze bat jartzeko aukera; bigarrenkoak; Sagardo kaxa bat eta Kronikan zorientze bat; eta zozketan sarituak; Errigora produktuen lote bat eta Doberako liburuen pack-a. **K**

Egunean Behin
GAURKO PARTIDA
JOKATUTA
Bihar beste bat!
ASTEKO SARIA
50€ BONOIA ELKAR dendan
Saria: Gipuzkoako Garraioaren Lursalde Agintaritzaren eskutik Elkar dendan erabiltzeko 50 euroko bonoia, bat inbuzlearen zati eta beste bat zozketaz.
Laguntzailea:

Egunean Behin aplikazio bat da.

Zinkoenea
Taberna - Jatetxea
Uztailetik aurrera ordutegi berria
Asteazkenetik igandera
Karta, bazkari kontzertatuak eta parrilla
Sagardo aukera zabala
Nagusia, 57 - Hernani 943 55 11 37

GNOMOS
PAPER DENDA
Pelotari, 11 Astigarraga
943 55 38 05



Eguneko menuaz gian, eskaintza anitza daukate.

«Herritar oro izango da ongi etorria»

GOIZ EGUZKI TABERNA
PUBLIERREPORTAJEA

Duela aste bete ireki zela berriro Goiz Eguzkiko taberna, eta uda gerturatzen ari denez, berrikuntza ugari ditu eskainteko.

Eguneko menua daukate, horrez gain, pintxoak, erra-

zioak, bokatak eta pizzak.

Goiz Eguzkiko jubilatuen etxea itxita egon arren, tabernak ateak ireki ditu, eta halaxe mantenduko da udari begira. Gainera, jakinarazi dute, herritar oro izango dela ongi etorria. Beraz bertaratze-ko deia luzatu dute.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† JUAN JOSE TOMASENA ALBISTUR
'Juanito'
Herenehun hil zen Hernanin, 80 urte zituela.
- Goian Bego -
Bere emaztea: Maria Jesus Altuna; semeak: Mikel, Jokin eta Andoni; anai-arrebak: Maria Luisa eta Imanol Alkorta, Joxemari eta Ana Mari Lasa, Luis Mari eta Maria Luisa Arriaga; ezkon anai-arrebak: Miguel Angel Altuna (†) eta Yurre Zumeta; Familia Gomez-Egaña eta Odriozola; ilobak eta gainerako ahaideak.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2020ko ekainaren 21ean

I. URTEURRENA
Antton Irazustabarrena Goenaga
- Goian bego -
Beti gure bihotz eta oroimenean, maite zaitugu.
ETXEKOAK
Urteurreneko meza egingo da **GAUR, IGANDEA**, eguerdiko **12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2020ko ekainaren 21ean

IRAGARKI MERKEAK

Alokatzeko pisu bila Hernanin, 600-650€ inguru. Gipuzkoako beste herri batetik Hernanira etorri nahi dut, bi seme-alaba zoragarriekin. **Deitu edo whatsapp: 657 493 654**

Magisteritza ikasten duen 20 urteko neska euskalduna udaran haurrak zaintzeko prest.
Deitu: 689 470 760

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

CEPA Hernani HHI
Helduen hezkuntza
Matrikula epea ekainaren 22tik 30era arte
Matrikula egiteko bi modu:
943 33 53 18 012076aa@hezkuntza.net
Ordutegia: 10:00 - 14:00
• DBH-ko TITULUA lortu
• Hizkuntzak: Ingelesa
• Zure ikasketak jarraitu
• Atzeritarrentzako gaztelera